


«ZELEDON»

Hamahiru urtez
zintzilik egotearen
gozamena

«BAGARE»

SOLASKIDE
Euskal tokien
aintzindari
Gasteizen

ARABATIK
BARTZELONARA
Joku Olinpikoetan
parte hartuko
duten arabarrak



Multisol Betaurrekoak. Bere prezioak bakarrik txundituko zaizu.

MENDIAOPTIKA

DESDE 1856 AZ GERO

MULTIOPTICAS

Beti Zuri Begira

Andre Maria Plaza
Olagibel, 33 (anbulategi aurrean) - GASTEIZ



Fundación Sapientia el Sabio Fundazioa

Konpainia on Baten Balioa

Bizitzan zehar lasai ibiltzeko segurura jo behar da. Konfiantza osoa emango dizun norbait behar da ondoan, indartsua, handia. Hitz batean esanda: LAGUN ARO

Lasaitasunaren balioa.

LAGUN ARO
SEGUROS ASEGURUAK



GEU
GasteizGasteizko Euskaldunon
Aldizkaria1691 Postakutxa
GASTEIZ"0" ale honetan
honakook ibili gara!**Idazlanetan:**
Agurne Aizpitarre
Mikel Garmendia
Iñigo Barruso
Iñaxio Lopez de Arana**Publizitatean:**
Xabier Rico
Luis Mujika
Martin Rezola**Taiuketan:**
Joseba Gorostiza**Maketazioa:**
Dáctilo**Argazki lanetan:**
Joseba Olalde**Kolaboratzaileak:**
Joseba Unzu, Manu Diaz,
Txema Millan, Josu Kintas,
Patxi Salaberri, Lukas Etxeberria,
Avelino Urretxo, Maribi Armendariz,
Txipi Ormaetxea, Asier Garro,
Alex Badillo, Xabier Etxaniz**EUSKARA- GASTEIZ.**
Geroa Elkarrekin Lantzen
taldearen babesarekin.

Inprimategia: Gertu, Koop. E. Oñati.

L. G. VI-582/92

HEMEN GAUDELA!

"Adiós París!...", esana izango du dagoeneko bateren batek -nork zehaztea ez zaigu oraingoz komeni-, "... hor ari dituk orain ere euskaltzale pelma horiek; aldizkariren bat edo atera nahian omen zebiltzak oraingoan". Eta horrelaxe izan gainera.

Ez gatzatzen, ordea, ohizko predikutan hasiko, hamaika bider entzunda egongo bait zarete honezkero hizkuntza bat berreskuratzeko egin beharreko pausoak zein diren, ez dakit nongo herritan egindako halako ikerketa batek dioenez halako metodologia hobea dela bestelako hura baino hizkuntza normalizatzeko, eta gisa horretako hainbat eta hainbat esaldi borobil.

Askoz ere xumeagoak dira, aldiz, gure asmoak: gasteiztarrek gara (jaiotzez, lanbidez edota bokazioz, berdin dio!) eta euskaraz bizi nahi dugu. Horixe da kontua eta horixe izan da, azken batean, "EUSKARA- GASTEIZ. Geroa Elkarrekin Lantzen" proiektuaren ingurura ekarri gaituena. Eta, erantsi beharrik ez dago, horrexegatik eta horrexetarako plazaratu nahi izan dugu eskuartearen daukazu aldizkari hau.

Lehendik ere ez al daude bada hor HABE, AIZU!, ARGIA eta baita Euskaldunon Egunkaria bera ere? -esango du, atzera ere, adiosparistarren batek. Esan bezala, gasteiztarrek izanik, bertako aldizkaria atera nahi izan dugu, Gasteizko aldizkaria, alegia. Hain zuzen ere, 0 zerbaki honek Gasteizko bizitzan berebiziko garrantzia duten jaiak hartu ditu gai nagusi, bestelakorik ahazten ez bada ere..

Argi utzi nahi dugu, beraz, euskara indartu eta zabaltzearekin batera, Gasteizko gizarte-bizitza, bertako gorabeherak, arazoak, gertaerak, etab. jasotzea dela gure asmoa. Horretarako dago, hain zuzen ere, aldizkaria hainbat atal desberdinetan banandua: elkarriketak, haurren atala, denborapasak, hiriko pertsonaia ospetsuak, ikus-entzutekoak, ...

Modu horretara nork bere txokoa aurkituko duelakoan gaude eta, zeresanik ez, asmoak aurrekoak izanik eta aldizkariari eman nahi diogun egituraketagatik, ezinbestekoa izango da zeuok, irakurleok, biziki parte hartzea.

Beraz, eta adiosparistarren baimenarekin (edo gabe),

Agur t' erdi Gasteiz!

Aldizkari hau dohain, debalde, banatzen da. Jaso nahi baduzu bete ohar hau eta bidali 1691 posta kutxara

GEU GASTEIZ ALDIZKARIA ETXEAN DOHAIN JASO NAHI DUT

IZENA:

DEITURAK:

KALEA: Zenb.: Pisua:

KODE POSTALA:

HERRIA:

Zeledon

*Begibistakoa da
oso nekeza dela
Abuztuaren 4eko
6retan lekutxo bat
aurkitzea Andra
Mari Zuriaren
Plazan. Areago,
beharbada inoiz,
txoko batetan kiz-
kurtuta edota jen-
detzaren artean
estu-estu eginda,
hara berriro ez
buelatzeko zina
egin izan dugu.
Hala ere, Zeledoni
agurra luzatzeko
aukera hori iritsi-
ta, inor gutxi gel-
ditzen da etxean.
Gasteiztarrok
ondotxo dakigu
horren zergaitia.*



Chimbo

Jatetxea

JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU

Cuchillería, 57 - Telefonoa 27 28 91 - GASTEIZ



MASAIA - QUIROMASAIA
Kote Zubizarreta

Olagibel, 20
Telefonoa 25 92 06

Iñaki Landa "Zeledon" edo hamairu urtez zintzilik egotearen gozamenen.

Denok dakigunez, Gasteizko jaiei hasiera emateko era berezia dugu gasteiztarrok. Abuztuaren 4ean, arratsaldeko 6etan, Zeledon jeitsi egiten da San Miguel elizako kanpandorretik, bere bidaia Posta kaleko balkoi batetan amaitzen delarik. Geroago, Iñaki Landa, kartoizko Zeledoni lekukoa harturik, milaka gasteiztar eta beste hainbeste ke zurrumbilo zein txanpan botilen arteko zirrikietatik limurtuz, Andra Mari Zuriaren plaza zeharkatu eta hara bildutakoei jai zoriontsuak opa izaten dizkie. *"Une horretan gozamenaren gozamenaz egoten naiz eta hango jendearen eromena eta alaitasuna ikusirik, edozein gehiegikeria esaten dut, aurreko urteren batetan gertatu zen bezala"* adierazi digu Iñaki Landak. Ondoren, ezer baino, bere lagunekin pote batzu hartzera joatea du nahiago. Horrela luzatzen dio agurra urteroko Abuztuak 4eko estualdiari. *"Egun horretan, ahal izanez gero behintzat, lasaitasunari eutsi nahi izaten dio, baina zaila izaten da Zeledonen jeitsiera benetan gertaera garrantzitsua delako."*

Euskal Herri osotik jende asko etortzen da Gasteizko jaietara eta Iñaki Landaren esanetan, *"hemengo jaiak ezagunak eta erakargarriak dira, herrialde guztietako lagunak etorri eta gustora ibiltzeko modukoak, alegia. Gainera argi dago Gasteizkoen gisako jaiak gogoko ditugula Euskal Herrian."* Egun horietan ondo pasatzeko formula ere jakin arazi digu: *"jaiak beren barrutik bizi behar dira norberak bertan parte hartuz."*

Juan Luis Isasik bere lekua hutsik utzi zuenetik hamairu urte igaro diren honetan, badirudi Iñaki Landa-



rengan boladarako Zeledon izango dugula. Egun Zeledonen irudiari bizia ematen dion gizon hau Eharin jaio zen duela 40 urte. Blusa arropa aspaldi jantzi zuen lehenengo aldiz eta puska batetarako izango bide du soinean, *"zezenketarako kalejiran dagoeneko parte hartzen ez dudan arren."* Beraz, bada, eutsi goiari, Iñaki!

JAKINTZA LIBURUDENDA



Landazuri, 7 - Tel. 13 12 26
GASTEIZ



ALBENIZ
MOBILIARIO

Cercas Bajas, 8
Telefona eta Faxe 28 74 82
01008 GASTEIZ

KALEA MINTZO

I N K E S T A

Gasteizko erdialdean IBARROLAREN eskultura bi kokatu berri dituzte, eta beste zenbait gairekin bezala, honekin polemika txiki bat sortu da. Guk jendearen iritzia jaso nahi izan dugu inkesta labur honetan. Horretarako bi galdera hauek egin dizkiegu:

1- Zer iruditzen zaizkizu Gasteizen jarri berri dituzten Ibarrolaren eskultura berriak?

1- Niri interesgarriak iruditzen zaizkit. Esaterako, kubo honi dagokionez, eskultura klasikoaren barruan, berak barnean dituen hutsuneak eta alboetako bihurguneek ohizkoarekin apurtzen dutela deritzot. Blokeari atxekiz, nik uste nuen askoz ere indar gehiago, hau da, bolumen handiagoa izango zuela. Zentzu horretan, apur bat handiago izan zedin nahi nuke nik. Dena dela, horrela ere gustatzen zait.

Nire ustez, guzti hori dirua alperrik galtzea izan da, beste kontu batzuetan diru premia handiagoa dagoen bitartean. Baina, horiei jaramonik egin beharrean ezertarako balio ez duten harritzar batzu erosi eta hemen jarri dituzte.


1- Nik gogoko ditut kultur adierazpen guztiak eta, jakina, eskultura hauek ere bai. Gure hiria-
ren onerako den guztia ondo iruditzen zait.



MARTIN DIAZ ZURUTUZA
(Argazkilaria)



CEFERINO PÉREZ
(Igeltseroa)



JUAN JOSE CRESPO
(Langilea)

2- Uste al duzu ondo kokatuta daudela ala zuk beste nonbait ezarriko zenituzke?

2- Egia esanda, kontu hori ez zait sekula burutik pasa ere egin. Eskulturek, orokorrean, hirian zehar dauden edifizioekiko (eskulturok horiek ere) kontrastea sortzen dute, horrela hiria bera alaituz. Alegia, hirian dena da eskultura, paperontzietatik hasita lorontzietaraino eta hemengo eskulturek eskultura mota horrekin apurtzen dute.

2- Ondo kokatuta dauden? Nik berehala kenduko nituzke hemendik eta dirutza hori dauden arazo larriak konpontzeko erabiliko nuke. Ez dut besterik esateko.

2- Niri berdin zait hemen edo hor egotea. Agian, hemen ondo daude, erdialdean batzu bakarrik bizi arren, denona delako.

axular

LIBURUDENDA

Arka Kalea, 11 - 01005 GASTEIZ



1- Ai, nik arteaz ez dakit ezer! Eskultura hauek ez badidate ezer esaten, zer esango dizut nik?



KONTXI GOMEZ DE SEGURA
(Etxekoandrea)

2- Eskultura hauek politak balira, erdialdean egon beharko lukete. Baina, nik ez dakit politak diren, horretarako arteaz apur bat jakin behar da eta. Niretzat zementu puska bat besterik ez dira!

1- Ez dakit ba! Oso originalak dira, ezta? Oso errealistak dira. Ondo daude. Gustatzen zaizkit.



JAVIER RUBIO
(Ikaslea)

2- Nire ustez, ondo daude dauden lekuan. Gainera, lekua polita da, Andra Mari Zuriaren Plazatik hurbil dagoelako edo.

1- Arteaz ez dakit gehiegi baina lagun batzuk esan didatenez, geometria oso inportantea da eskultura hauetan. Dirudienez, horrek zerbait adierazi nahi du.



Mª CARMEN GARCIA
(Ikaslea)

2- Nire ustez, erdialdean ondo daude hemen-dik jende asko ibiltzen delako.

fasprint

Cercas Bajas, 4
Diputazioaren atzekaldean
Tfnoa: 27 92 51 - Fax: 25 42 10

Inprenta zure zerbitzura

Eskutxartelak, fakturak, Eranskailuak, Gonbide txartelak, Aldizkariak, Txartelak

ZERBITZU BERRIAK

- Paper birtziklatua eta ekologikoa
- FOTOKOPIAK KOLORETAN
- Kamisetetan estanpaketak

BITORIA 'KO URIA

Araba lauan bizi zarean uri galanta,
Araka-n leku gorenengoan naz jazarri.
¡Ai! emen baneu euskal lira bat zu ondretako,
Soñu eragin orain daiodan nik berari.

¡Nor ez zorati gain onetatik zuri begira,
Odei bat бага gaur legez goya dagonean,
Kano guztia galaz jantzirik dakusdan legez,
Urte danetan aurkitzen dala Bagillean?

¡Ze ikusteko arrigarria zarean bada!
Zure zorua aberasturik dot ikusten,
Gariak dagoz alez betetan mardo ta zarden,
Goseaz gaizki uri maitea ill ez daiten.

¡Ze zelai zabal landuz zagozan inguratua!
Ainbeste erritxo eleixa eta torredunez,
Dirudizula ollo ama bat erdi-erdian,
Korro egiña txitatxo polit edo umez.

Erregiña bat begitanduten niri zatxataz,
Albo erriok eresten jataz menpekoak;
Agaitik dozuz zeatz gozetan bertan sortuten
Direan eiza, esne, arrautza ta arraiñtxoak.

Zure kristalen islak izarra dabez irudi,
Zure etxeok edurra legez dira zuri,
Eta Ebroruntza Gamarran zear doian Zadorrak,
Izarrentzako ispillu dala gaur dirudi.

Zure torreok ikusten dodaz zelan dabezan,
Euren buruak odeietara eregiten;
Danen artetik Santa Maria, baña, nik dakust,
Goren dalako zerutik urren aurkituten.

Arratsaldeko seirak jo ditu an erlojuak,
Gorbeya alderuntz urreratzen da Eguzkia;
Gebaran dago gaztelu zarra ari begira,
Eta nik barriz Bitoriaruntz dot begia.

OLERKI KUTXA

¡O! Bitoria, zenbait direan zure umantak!
¡Ai! albaneizuz zearo kantau gaur gloriak!
¡Ai! albaneizuz gaur iragarri anditasunak!
Dituzulako ugari eta zurgarriak!

Baña, ezin nei kontu orixe ezelan egiñ,
Dituzulako aín asko eta aín ugari;
Gura dabenak billatuko dauz istorietan,
Dozuzalako antxe egiten danak jarri.

Deituko deusut nik alanbere, seme askoren
Abia ederra; Euskal-erria ondreetako,
Balio izan deuskulako berbaz, lumaz ta
Armaz, asaben eskubideak gordetako.


Arteetan bere, ez dira azken zure semeak,
Industrietan aurrera doaz aspaldian;
Eleiz-gizonak Araban dira gaingañekoak,
Sermolariak lenengokoak Bitorian.

Nik bere zuri zor deusut dodan ofizioa.
Ikasi neutsun bizitzeko lain irabazten,
¡O! zenbat esker zor deusudazan gañera,
santu-irudi asko deustazulako eragiten.

Artu egizu ordaingarrizatz gaurko kantu au,
Naiz bertsolari motzak au izan ipiñia,
Obeago ta zoliagoak zaizala jarri,
Dagotzun añan, dagotzun mallan eregia.

Agur, betiko, azkenengoa begiraldi au,
Benturaz balitz, leku eregi onetatik,
Ni illda bere biziko al zara zorionakaz,
Zerren maitatzen zaitudan beti biotzetik.

FELIPE ARRESE-BEITIA



KOLDO MITXELENA
I N S T I T U T U A
G A S T E I Z

Zabaldu nahirik gure hirian

Euskal hitzaren kirola

Bere hamargarren urtemugan da

Gasteizko Bertso Eskola

Atseginean bertsoa landuz

Dugu zerbaiten axola

Aurrerantzean ere indartzea

Gure hizkuntzaren arbola.

**GASTEIZKO BERTSO
ESKOLA**

URTETIK - URTERA



JAIK ANDRE MARI ZEHARRIN 1991

VITORIA

VIRGEN BLANCA 4-9 AGOSTO 1991



GASTEIZ EUSKALDUNTZEN



José Mardones, 8 - Tfnoa: 26 35 40
Perú, 8 - Tfnoa: 22 60 50

FESTA



MOBILIARIO kide
apaindura

Cercas Bajas, 27 - Tfnoa.: 14 41 95 - 01008 GASTEIZ

AIRETIKO ARGAZKIAK

ERRAMUN
Argazkilaria

Heraclio Fournier, 23
Tfnoa: 13 71 02
01006 GASTEIZ

GIROA



 **rdatz**

**itzulpen eta
euskara zerbitzuak**

arana, 51 - tfnoa: (945) 26 44 32 - 01002 - gasteiz

Bagare: Euskal txoko bat Gasteizen.

«Euskaldun eta euskaltzeleen artek elkarlana sendotu behar dugu»

Mundu guztiak daki jadanik zer den Bagare Euskal Tokia, eta zer nolako ildoan eraman duen lau urte eta piku hauetan. Beraz, ez gara horretaz arituko. Halere komenta dezakezue non eta zertan ari zareten gaur egun?

Badakizue fisikoki alde zaharreko Kutxileria kaleko azken kantoian kokaturik dagoela Euskal Tokia, eta beharbada horren eraginez, sozialki jende gaztearen artean murgiltzen garela. Gaur egun kultura, aisialdi eta kirol munduan dihardugu nagusiki.

Zeintzu dira orain arte egin dituzuen ekintzarik aipagarrienak eta gaur egun daukazuen egitasmoa?

Gure lehendabiziko ekintza haxe izan zen: Dirua lortu lokala erosi ahal izateko, hori ordaintzeko taberna ere erosi egin behar izan genuela. Oraindik ere lokala tabernari esker ordaintzen jarraitzen dugu beste diru iturrien faltan. Horretaz gainera, taberna egokia suertatu zaigu bai euskaldunen topagune izateko, eta bai hainbat euskal ekitaldiren erreferentzia gisa: Araba Euskaraz, autobusak antolatzerakoan bertan biltzeko, etab. Eta, harrapaladan aipatzearren, hona hemen burutu dugun ekintza sorta bat: Kultur asteak, Euskal Kantu, txiste, ipuin eta abarreko txapelketak, autobusak, hitzaldiak,

jaialdiak, erakusketak, ikastaroak, tailerrak, kirol irteerak eta txapelketak; bestalde, aipatu behar dugu Gasteiz, Araba eta Euskal Herri osoko hainbat talderekin harremanetan gaudela gauza gehiago antolatu ahal izateko.

Egitasmoa? Ba egindakoaren ildotik jarraitu eta hobetzeaz gain, oso garrantzitsutzat jotzen dugu gaur daukagun zuzpertailearen lana, taldeen arteko koordinazioa zehatzago eraman ahal izateko. Horrekin batera, ezinbestekoa iruditzen zaigu martxan dauden hainbat talde sendotzea (euskal kantu taldea, kale animazio taldea, mendi taldea, ...), eta beste batzuk sortzea (futbito taldea, xake taldea, etab.).



**KIKATZEN
KALE ANIMAZIOA**





« Iniziatiba
euskaltzale
guztien alde
kokatzen gara»

Euskalgintzaren munduan, non kokatzen duzue zeuen burua?

Geu, iniziatiba euskaltzale guztien alde kokatzen gara. Horrela euskal eremu sozial guztietatik (Argia, Egunkaria, Korrika, Araba Euskaraz, EKB,...) eta instituzioetatik datozkigun laguntza eskaera guztiei erantzuten diegu. Aldiz, euskarari egiten zaizkion eraso guztien aurkako jarrera aktiboa dugu. Horrela izanik, bazkide izateko baldintza bakarra euskaldun eta euskaltzale izatea da.

Sortu berria den EUSKARA-GASTEIZ taldea ikusten al duzue zuen funtzioetan sar ote daitekeenik?

Gure funtzioak edo lan eremuak aipatu ditugu, eta horien osagarri suertatzen den guztia, jakina ongi etorria izango dela, zeren, eta nahiz eta hiru funtzio horietatik zabaltzeko asmoa betidanik eduki dugun (aldizkaria sortzeko saiakera pare bat), mugatuta egon gara. Hots, euskaldun eta euskaltzaleen arteko elkarlana sendotu behar dugu, eta Gasteizko tipologiari dagozkion berreskuratzeko premiarik gehien daukaten hizkuntz funtzioak jorratzera jo behar dugu. Horrela, talde batek baino gehiagok funtzio berberak hartzea euskaldungoa biltzea baino banatzea izango litzateke. Gure funtzioen osagarria den guztiari laguntzeko prest gaude, eta era berean, gure iharduerari laguntzea eskertu, eskertzen eta eskertuko dugu.

Bagare
EUSKAL C TOKIA
Kutxileria, 62 - 01001 Gasteiz
945 - 25 10 84

**LAN EGIN EZAZU
EUSKARAREN ALDE**

JAIETAKO EGITARAUA

Gasteizko jaiak berriro! Ondoren doakizue Gasteizko jaietan izango dugun ekintza eta ospakizun sorta ederra. Ikusten duzuenetz, non eta zer aukeratu badago. Ondo pasa, gutxi gastau eta bueltak amari!

4a ASTEARTEA.

arratsalde

6etan: Andra Mari Zuriaren plazan: Jaiei hasiera emango dien suziariaren jaurtiketa eta Zeledonon jaitsiera. Txosnetan: Musika talde internazionalista batekin

6,30etan: Diputazioa plazan: Musika-animazioa, Biasteriko bandaren eskutik. Amarika plazan: Musika-animazioa, Lantziegoko bandaren eskutik. Santa Barbara plazan: Musika-animazioa, San Asensioko bandaren eskutik. Erdialdean: Musika-animazioa, Ezberdinak, Erletxo, Zurraldi, Indarra eta Elciegoko gaitajole-bandekin. Foru plazako frontoian: 92ko Andra Mari Zuriko pilota sariketa.

6,45etan: Udaletxea, Agirre Lehendakaria kalea, Postas kalea eta Andra Mari Zuriaren plazan barrena: Udal Komitiba, erraldoi eta buruhandien segizioarekin.

Ondoren: San Migel parrokiaren Lore eskeintza Andra Mariaren aurrean, Bezperak eta Salbea.

7etan: Peñafloridako kontearen plazan: Dantzaldia, Arkaitz taldearen eskutik.

8etan: Txosnetan: Rock kontzertua Zaramagako Musika Eskolako bi talderekin: The Luto eta Melakome

gauez

10etan: Erdialdeko kaleetan: Farolen prozesioa. Txosnetan: Pelikula edo dokumental internazionalista.

11,30etan: Olagibel kalean (Banco de España): Zezen suzkoa. Peñafloridako kontearen plazan: Gaujaia Pontevedrako Orkestrarekin.

12etan: Foru plazan: Complices taldearen kontzertua. Txosnetan: Rock kontzertua: Kontrabanda + Parada de Blues

12,30etan: Plaza berrian: Ana Reverteren kontzertua.

12,30etatik goizeko 3etara: Erdialdeko kaleetan: Musika-animazioa, Biasteri, Lantziego eta San Asensioko banden eskutik.



HEGOALDE
euskaltegia.

Florida 58, behe. Tfnoa. 28 41 96 - 01005 GASTEIZ

ZALU-k

fotokopiak

GEU-GASTEIZ aldizkariaren
irakurleak agurtzen ditu.

c/. Prado, 20 behea
GASTEIZ

Tfnoa. 28 82 48
Fax: 25 32 91

5 ASTEAZKENA.

goizez

7etan: Ertaroko hirigunean eta Andra Mari Zuriaren plazan. Egunsentiko Errosarioa eta Prozesioa.

9etan: Plaza berrian. Dianak, Udal Musika Bandak, Txistulariek, Dultzainajoleek eta Blusen kuadrilek interpretaturik. Ondoren Udal Musika Bandak Ibilbidea burutuko du Postas, Loma Generala, San Antonio, Foruak, Alava Generala, Dato, Florida eta San Antonio kaleetan barrena. Biasteriko bandak S. Kristobal auzoan iharduko du. Lantziegoko bandak Santa Luzia auzoan. San Asensioko bandak Arana eta Arantzabela auzoan.

10,30etan: San Migel parrokan. Meza pontifiziala, bertan izango da Gasteiz-ko udalbatzarra.

11etatik 14etara: Foruen plazako bolatokian. Andra Mari Zuriaren saria boloetan. Erakustaldia. Foruen plazan (frontoia). Andra Mari Zuriko pilota saria. Hainbat klubetako pilotari infantilen arteko partidua. Furundarena-Egino Guinea-Alonsoren kontra: Asurmendi I-Barandiaran Errasti-Zubilagaren kontra.

eguerdian

12etan: Erraldoi eta buruhandien konpartsa Andra Mari Zuriaren plazan. Zapaterian, Arriagako Atean, Ahate iturrian, Jesusen Zerbitzarien kalean, Diputazio kalean eta plaza berrian ibiliko da, gaitajole bandekin batera: Ezberdinak, Erletxo, Zurraldi, Indarra eta Elciego. Gargantua Diputazio plazan egongo da.

12,30etan: Florida parkeko kioskoan. Udal Musika Bandaren kontzertua. Peñafloridako kontearen plazan. Ertzaintzaren Musika Bandaren kontzertua.

1etan: Foruen plazan. Andra Mari Zuriaren saria, Aizkolariak Arabako txapelketarako baliagarria. Amarika plazan. Proismo Cero, txotxongilak.

1,30etan: Matxete plazan. **Bertsolariak:** Igor Elorza, Unai Iturriaga, Maddalen Lujanbio.

arratsaldez

5etan: Plaza berritik zezen plazara. Zezenetara joatea

6etan: Pradoko parkean. Dantzaldia, Simba orkestraren eskutik. Vicente Goikoetxea kalean. Nafarroako

jotak, Los Pamplonicas-en eskutik. Abendañuko zirkuituan. XXXVII. Andra Mari Zuria saria. 1. kategoriko txirrindulari afizionatuentzat. Zezen plazan. Abonuko lehenengo zezenketa. Extremadurako Moro Anaïen abeletxeko zezenak, Miguel Baez "Litri", Jesulin de Ubrique eta Manuel Caballero zezenketarientzat. Txosnetan. Txalaparta

6,30etan: Floridako parkeko kioskoan. Haurrentzako dantza Ortazar taldearekin. Matxete plazan. Biasteriko banda. Santa Barbara plazan. Eltziegoko banda. Postetxe plazan. San Asensioko banda.

7etan: Amarika plazan. Jazz-aren txokoa, Igarperen eskutik.

7,30etan: Matxete plazan. Haurrentzako ikuskizuna euskaraz Azkonaren eskutik. Peñafloridako kontearen plazan. Dantzaldia Izar taldearen eskutik.

8etan: Floridako parkean. Zezen Suzkoa txikitxoentzat. Txosnetan. Rock kontzertua: Obligaciones del Estado + Residuos Tóxicos

8,30etan: Zezen plazatik Plaza berrira Zezenetatik itzultzea.

9etan: Matxete plazan. Dantza plazan,

Ezberdinak, Erletxo, Zurraldi eta Eltziegoko gaitajole bandaren eskutik.. Bukaeran "Baile de la era" eta "Txulalai" dantzatuko dira.

gauez

10etan: Olabe pilotalekuan (Mendizorrotza). "Andra Mari Zuria" zesta punta saria (finalak)

11etan: Arriagako San Juan parkean. 1. su artifizialak, A. Caballer piroteknia- ren eskutik. Matxete plazan. Xaximiku folk taldearen kantaldia.

11,30etan: Olagibel kalean. Zezen suzkoa. Penafloridako kontearen plazan. Gaujaia Izar taldearekin. Arkako plazan. Gaujira Nueva Alaska orkestrarekin

12etan: Foruen plazan. "La Década Prodigiosa" taldearen kontzertua. Txosnetan. Rock Kontzertua: Reincidentes + Eskitxu

12,30etan: Plaza berrian. Julio Sabalaren show-a

12,30etatik goizeko 3etara. Musika kalean oinezkoentzako esparruan barrena, fanfarria eta txarangekin.

EUSKARA

Gasteizko IKak

jai zoriontsuak opa dizkizue

* GASTEIZ euskaltegia:

Errege Katolikoak, 15-C - Tfnoa. 28 89 22

* PINTO euskaltegia:

Pintorería, 74 - Tfnoa. 28 97 80

* ZALDIARAN euskaltegia:

Zaldiaran Plaza, 16 - Tfnoa. 24 49 05

6 OSTEGUNA.

goizez.

10etan: Plaza berrian. Dianak, Udal Musika Bandak, Txistulariek, Dulzainajoleek eta Blusen Kuarilek interpretaturik. Ondoren Udal Musika Bandak Ibilbidea burutuko du Posta, Diputazioa, Samaniego, Ricardo Buesa, Antso Jakituna, Lovaina, Madalena, Becerro Bengoa eta San Prudentzio kaleetan barrena. Biasteriko bandak Abetxuko auzoan ihardungo du, Lantziegoko bandak Babesgabeen

auzoan. San Asensioko bandak Errekaleor eta Adurtza auzoetan.

11etan: Zezen plazan. Zekorrak

11etatik 14etara. Foruen plazako bolatokian. Andra Mari Zuriaren saria boloetan. Erakustaldia. Foruen plaza-ko frontoian. Andra Mari Zuriko pilota saria. Hainbat klubetako pilotari infantilen arteko partidua. Tejada-Pinedo Bikuña-Uribarrenen kontra. Biasteri-Resano Errasti-Zubilagaren kontra.

eguerdian

12etan: Erraldoi eta buruhandien konpartsa. Babesgabeen auzoan, Santiago ospitalaren inguruan eta Errege Atean ibiliko dira, gaitajole bandekin batera. Gargantua Postetxe plazan izango da.

12,30etan: Florida parkeko kioskoan. Udal Musika Bandaren kontzertua. Peñafloridako kontearen plazan. Ertzaintzaren Musika Bandaren kontzertua.



1etan: Foruen plazan. Andra Mari Zuria sokatira saria (600 kl.). Taldeak: Badaioitz, Arrizkuzubi eta Aramaio. Zozkor apustua: Valeriano Argulo-Alberto Ibañez. Harrijasotzailea: Isaac Albeniz "Gesaltzako Tigrea". Amarika plazan: Txotxongiloak Gorakada taldearen eskutik.

1,30etan: Matxete plazan. Bertsolariak: Ricardo Gonzalez de Durana, Zigor Enbeita.

arratsaldez.

5etan: Plaza berritik zezen plazara. Zezenetara joatea

6etan: Pradoko parkean. Dantzaldia, Simba orkestraren eskutik. Vicente Goikoetxea kalean. Nafarroako jotak, "Aupa Navarra"ren eskutik. Zezen plazan. Abonuko bigarren zezenketa. Salamancako El Pilar abeletxeko zezenak, Emilio Muñoz, Paco Ojeda eta Enrique Ponce zezenketarientzat. Txosnetan. Trikitilariak. Alboka jole-

ak. Dulzaineroak. Hankaluzeak.

6,30etan: Floridako parkeko kioskoan. Haurrentzako dantza Ortazar taldearekin. Santa Barbara plazan. San Asensioko banda. Postetxe plazan. Lantziegoko banda. Judizmendiko parkean. Biasteriko banda

7etan: Amarika plazan. Jazz-aren txokoa, "Parada de Blues" taldearen eskutik.

7,30etan: Matxete plazan. Arrasateko Lore Gazteak dantza taldea. Peñafloridako kontearen plazan. Dantzaldia Alkartu orkestraren eskutik.

8etan: Floridako parkean. Zezen Suzkoa txikitxoentzat. Txosnetan. Kontzertua: Pendientes de Pago + Betagarri + The txiripa

8,30etan: Zezen plazatik Plaza berrira. Zezenetatik itzultzea.

9etan: Matxete plazan. "Baile de la era" eta "Txulalái" dantzatuko dira.

gauez.

10etan: Olabe pilotalekuan (Mendizorrotza). "Andra Mari Zuria" zesta punta saria. Txosnetan. Pelikula bat euskaraz

11etan: Arriagako San Juan parkean. 2. su artifizialak, A. Caballer pirotekniaren eskutik. Matxete plazan. Mister Blue Jazz Musikaldia.

11,30etan: Olagibel kalean. Zezen suzkoa. Peñafloridako kontearen plazan. Gaujaia Alkartu taldearekin

12etan: Foruen plazan. Tennessee. Txosnetan. Rock kontzertua: EH Sukarra + SS 77

12,30etan: Plaza berrian. Alcatraz orkestra

12,30etatik goizeko 3etara. Musika kalean oinezkoentzako esparruan barrena, fanfarria eta txarangekin. Arkako plazan. Gaujaia, Joselu Anaiak taldearekin (Okerrak Blusa kuadrilak antolatuta)

Egunkaria
EUSKALDUNON

«TXUSTA» FESTETAN EGUNKARIAREN TABERNA - Mateo Moraza, 19

Zatoz Festara!



"Urtean oso egun gutxi izan ohi ditugu gure kezkak baztertzeko, atsedinari eta alaitasunari lekua uzteko.

Nire Zorionik beroenak Arabatar guztioi."

ALBERTO ANSOLA
Diputatu Orokorra

**Jai
Zoriontsuak!**




7 OSTIRALA.

goizez

10etan: Plaza berrian. Dianak, Udal Musika Bandak, Txistulariek, Dulzainajoleek eta nagusi eta txikien Blusen Kuarilek interpretaturik. Ondoren Udal Musika Bandak Ibilbidea burutuko du Posta, Foruak, Nueva Fuera, San Bivente de Paul, San Prudentzio erresidentzia, Frantzia, Bakea, Ortiz de Zarate eta San Antonio kaleetan barrena. Gatzagako bandak San Martin auzoan barrena egingo du kalejira. Eltziegoko bandak Ariaga auzoan joko du

11etan: Zezen plazan. Zekorrak

11etatik 14etara: Foruen plazako bolatokia. Andra Mari Zuriaren saria boloetan. Erakustaldia. Foruen plaza-ko frontoian. Andra Mari Zuriko pilota saria. Arabako pilotarien arteko partiduak



Egurrezko jostailuak

Didaktika-materiala

Opariak

Benito Guinea, 2
☎ 25.75.14
GASTEIZ

11,30etan: San Migel parrokian. Blusa txikien Meza eta Lore eskaintza

eguerdian

12etan: Erraldoi eta buruhandien konpartsa San Antonio, Florida, Foruak eta Posta kaleetan eta Andra Mari Zuriaren plazan. Gargantua Andra Mari Zuriaren plazan izango da.

12,30etan: Florida parkeko kioskoan. Udal Musika Bandaren kontzertua

1etan: Plaza berrian. Zeledon txikiaren jaitsiera. Foruen plazan. Harrijaso-tzaile, aizkolari eta trontzalari eskolen erakustaldia.

1,30etan: Matxete plazan. Bertsolariak: Jon Lopategi eta Jon Enbeita. Amerika plazan. Txotxongiloak Kiska taldearen eskutik.

arratsaldez

5etan: Plaza berritik zezen plazara. Zezenetara joatea

6etan: Pradoko parkean. Dantzaldia. Simba orkestraren eskutik. Vicente Goikoetxea kalean. Nafarroako jotak "Aupa Navarra"ren eskutik. Zezen plazan. Abonuko hirugarren zezenketa. Huelvako Jose Ortigaren abeletzeko zezenak, Pedro Moya "El Niño de la Capea", Cesar Rincón eta Joselito zezenketarientzat. Txosnetan. Antzerkia

6,30etan: Floridako parkeko kioskoan. Haurrentzako dantza Ortazar taldearekin. Santa Barbara plazan. Eltziegoko banda

7etan: Amerika plazan. Jazz-aren txokoa, "Goialde-Senperena Quartet".

7,30etan: Matxete plazan. Dantza Plazan: Udal Folklore Akademia. Bukeraren "Baile de la era" eta "Txulalai" dantzatuko dira. Peñafloridako kontearen plazan. Dantzaldia Izotz orkestraren eskutik.

8etan: Floridako parkean. Zezen Suzkoa txikitxoentzat. Txosnetan. Kontzertua: Epapare + Beirut

8,30etan: Zezen plazatik Plaza berrira. Zezenetatik itzultzea.

gauzez

10etan: Olabe pilotalekuan (Mendizorrotza). "Andra Mari Zuria" zesta punta saria.

11etan: Arriagako San Juan parkean. 3. su artifizialak, Astondoa piroteknia- ren eskutik. Matxete plazan. Irigoi en anaiak: Kantaldia

11,30etan: Olagibel kalean. Zezen suzko. Penafloridako kontearen plazan. Gaujaia Izotz taldearekin

12etan: Foruen plazan. Oskorri. Txosnetan. Kontzertua: Potato + Malafama.

12,30etan: Plaza berrian. Plateria orkestra

12,30etatik goizeko 3etara. Musika kalean



8 LARUNBATA.

goizez

10etan: Plaza berrian. Dianak, Udal Musika Bandak, Txistulariek, Dulzainajoleek eta Blusen Kuarilek eta Blusa Zaharrek interpretaturik. Ondoren Udal Musika Bandak Ibilbidea burutuko du Herreria, Arriagako Atea, Jesusen Zerbitzariak, Diputazio, Loma Generala eta San Antonio kaleetan barrena. Lantziegoko bandak Sansomendik joko du.

11etan: Zezen plazan. Zekorrak

11etatik 14etara: Foruen plazako bolatokia. Andra Mari Zuriaren saria boloetan. Erakustaldia. Foruen plaza-ko frontoian. Andra Mari Zuriko pilota saria. Arabako pilotari infantilen arteko partiduak. 1. finalerdia. 2. finalerdia.

eguerdian

12etan: Erraldoi eta buruhandien konpartsa Cuchilleria, San Prudentzio egoitza, Frantzia kalea eta Erregearen Atea kalean barrena. Gargantua Babesgabeen plazan izango da.

12,30etan: Florida parkeko kioskoan. Udal Musika Bandaren kontzertua

1etan: Foruen plazan. Andra Mari Zuriaren Saria. Iparraldeko jokuak. Araba eta Bizkaiko selekzioak. Lasto altzari, zakulari, orga joko, unkudiak, txinga erute. Amerika plazan. Txotxongiloak "Colorin y sus muñecos"en eskutik.

1,30etan: Matxete plazan. Bertsolariak: Arantzazu Loidi, Jon Maia eta Esti-txu Arozena.

arratsaldeaz

5etan: Plaza berriatik zezen plazara. Zezenetara joatea

6etan: Pradoko parkean. Dantzaldia, Simba orkestraren eskutik. Vicente Goikoetxea kalean. Nafarroako jotak "Brotos Navarros"en eskutik. Zezen plazan. Abonuko laugarren zezenketak. Salamancako Paxo Galache abeletxeko zezenak, Victor Méndez, Vicente Ruiz "El Soro" eta "Morenito de Maracay" zezenketarientzat. Txosnetan. Trikitixa. Txalaparta

6,30etan: Floridako parkeko kioskoan. Haurrentzako dantza Azkona taldearekin. Santa Barbara plazan. Eltzie-goko banda

7etan: Amarika plazan. Jazz-aren txo-koa, "Goialde-Senperena Quartet".

7,30etan: Matxete plazan. Haurrentzako ikuskizuna euskaraz Ortazar taldearekin. Peñafloridako kontearen plaza. Dantzaldia Continente-rekin.

8etan: Floridako parkean Zezen Suzkoa txikitxoentzat. Txosnetan. Kontzertua: Desterrados + Sindorme+ De mala Fe

8,30etan: Zezen plazatik Plaza berrira. Zezenetatik itzultzea.

9etan: Matxete plazan. Dantza Plazan: "Baile de la era" eta "Txulalai".

gauetz

10etan: Olabe pilotalekuan (Mendizorrotza). "Andra Mari Zuria" zesta punta saria. Iparraldeko parkean. Cadena Ser-en Super I

11etan: Arriagako San Juan parkean. 4. su artifizialak, Pirotecnia Zaragozaren eskutik. Matxete plazan. Mikel Markez: Kantaldia

11,30etan: Olagibel kalean. Zezen suzkoa. Peñafloridako kontearen plaza. Gaujaia Continente orkestrarekin. Arkako plazaratxoan. Gaujaia Bries orkestrarekin

12etan: Foruen plazan. "Gatos Locos"en kontzertua. Txosnetan. Kontzertua: Parabellum + Rabia

12,30etan: Plaza berrian. Norma Duvalen show-a

12,30etatik goizeko 3etara. Musika kalean

9 IGANDEA.

goizez.

10etan: Plaza berrian. Dianak. Udal Musika Bandak, Txistulariek, Dul-tzainajoleek eta Blusen Kuarilek interpretaturik. Ondoren Udal Musika Bandak Ibilbidea burutuko du Posta, Olagibel, Bakea, Jesus Guridi, Ortiz de Zarate, Florida eta San Antonio kaleetan barrena. Eltziegoko bandak Zaramagan joko du. Gatzagako bandak El Pilar auzoan.

11etan: Zezen plazan. Zekorrak

11etatik 14etara. Foruen plazako bolatokian. Andra Mari Zuriaren saria boloetan. Erakustaldia. Foruen plaza-ko frontoian. Andra Mari Zuriko pilota saria. Arabako pilotari infantilen arteko partiduak. Arabako pilotari jubenilen arteko partiduak. Sariketa-aren amaiera eta sarien banaketa.

eguerdian

12etan: Erraldoi eta buruhandien konpartsa Andra Mari Zuriaren plazan, Plaza berrian, Dato, Alava Generala eta Foruak kaleetan barrena eta Postetxe aurrean ibiliko da. Gargantua Arkako plazaratxoan izango da.

12,30etan: Florida parkeko kioskoan. Udal Musika Bandaren kontzertua

1etan: Foruen plazan. Idi probak (pisu librea). Amarika plazan. Txotxongi-loak "Colorin y sus muñecos"en eskutik.

1,30etan: Matxete plazan. Bertsolariak: Jon Sarasua eta Xabier Amuriza.

arratsaldeaz.

5etan: Plaza berriatik zezen plazara. Zezenetara joatea

6etan: Pradoko parkean. Dantzaldia, Simba orkestraren eskutik. Vicente Goikoetxea kalean. Nafarroako jotak "Alma Navarra"ren eskutik. Zezen plazan. Abonuko bosgarren zezenketak. Salamancako Terrubias abeletxeko zezenak, Paco Hermoso de Mendoza burtzikariarentzat eta Tomás Campuzano, Emilio Oliva eta "El Fundi" zezenketarientzat. Txosnetan. Antzerkia

6,30etan: Floridako parkeko kioskoan. Haurrentzako dantza Azkona taldearekin. Judizmendiko parkean. Eltziegoko banda

7etan: Amarika plazan. Jazz-aren txo-koa, "Yerri Jazz Band".

7,30etan: Matxete plazan. Orritz dantzataldea (Irurtzungoa). Bukatutakoan "Baile de la era" eta "Txulalai". Peñafloridako kontearen plaza. Dantzaldia Ensayo taldearekin.

8etan: Floridako parkean. Zezen Suzkoa txikitxoentzat. Txosnetan. Kontzertua: Salvate si puedes + Sin más

8,30etan: Zezen plazaratik Plaza berrira. Zezenetatik itzultzea.

9etan: Matxete plazan. Dantza Plazan: "Baile de la era" eta "Txulalai".

gauetz

10etan: Olabe pilotalekuan (Mendizorrotza). "Andra Mari Zuria" zesta punta saria. Foruen plazan. Gazteen-tzako kontzertua, Lord Byron, UTM eta Desconocido taldeekin


11etan: Matxete plazan. Tapia eta Leturia, gaurko trikitixa. Olagibel kalean. Zezen suzkoa. Peñafloridako kontearen plaza. Gaujira, Ensayo taldearekin. Arkako plazaratxoan. Gaujira, Drakkar orkestrarekin. Plaza berrian. Kubatik etorria, Anacaoma show-a. Goizeko ordu 1ean: Andra Mari Zuriaren plaza. Zeledon agurtu eta igo egingo da. Azken traka Valacea Piroteknariaren eskutik.



Gure hizkuntza Araban ere
bertso bezala da gora,
laister euskara egingo dugu
Adurretikan Ebrora.

Plaza Berria, 14
Virgen Blanca, 1
Tf.: 23 16 79 GASTEIZ

UNES MIKELDIZINEMAK



MIKELDI
Pº Mº Verástegui, 16

MIKELDI ZINEMAK
1 - 2 - 3 - 4 - 5
Portal de Villarreal, 44

HAURRON JAIK

Abuztuaren 4ean hasten dira jaiak. Zeledon handia jaitsiko da eta guraso, osaba, izeba eta denak hasiko dira dantzan. Gu berriz barraketara, pailazoekin jolastera, antzerkiak ikustera... eta gure Zeledon txikiari ongi etorri ematera! Helduek bezala, guk ere jaiak ditugulako, guk ere salto, dantza eta jolas egin nahi dugulako egun hauetan. Jaiak gureak ere badirela! Ongi etorri Zeledon!



*Azken hizkia hasieran
on egiten du bukaeran,
aterkia du eskuan
eta ahoan purua.*



*Zeleron
aitona kaskabeleron
Zeleron
aitona din baston.*



**NORK BERE. ESPERANTOA DENONA
IKASTAROAK URRITIK AURRERA
ARABAKO ESPERANTO ELKARTEA**

Zapatería, 29 - Tel. 22 05 70



Pinedo
JOSTUNDEGIA

San Antonio, 11 - Tfnoa. 23 39 90 - GASTEIZ

JOLASAK

Esaera zahar hauek batu.

**Nolako soinularia
Jakitunen artean dabilena
Egur zaharra
Nagusi askoren astoa
Hagina dabilenean
Burla minena**

goseak hil.
egia dioena.
halako dantzaria.
sabela pozik.
su txarra.
jakitun.

IGARKIZUNAK.

Lurrera bota
eta ez da hausten,
uretara bota
eta hausten.

(papera)

Ahotik begiratu
eta tripa agertu

(lapikoa)

Barrika batean
bi ardo daude
sekula
nahastu gabe

(artaulizea)

POESIA

*Boto nina, boto nina,
boto nina, boto bi,
en Vitoria lo aprendí;
una moza, neskato bat,
dos huevos, arraultze bi,
boto nina, boto nina,
boto nina, boto bi.*

(A. Lertxundi. Artillero dale fuego. Erein)

VDABERRIA
elkartea
EUSKALTEGI HOMOLOGATUA-ERES-ESKOLA-DANTZA
JAI ZORIONTSUAK
Abendaño, 48 - Tfnoa. 22 34 33
Uruguay, 9 - Tfnoa: 24 49 65
D. Rojas, 1 - Avda. Gasteiz, 46
Vitoria - Gasteiz

ditare
MIHISEDENDA
UME ETA EMAKUMEENTZAKO
LENTZERIA ETA BARRUKO ARROPAK
Cruz Blanca, 13 - GASTEIZ

IPUINA

BI MIOPEAK

Baziren behin bi miope eta ez batak ez besteak ez zuen bere zoritxarra onartu nahi, are gehiago nork besteari erakutsi nahi zion zer bista ona zuen.

Egun batean jakin zuten herriko familia batek zin-oroigarri bat eramango zuela elizara. Bakoitzak bere aldetik lortu zuen oroigarriaren testua eta tenpluan jarri behar zuten egunean, han agertu ziren biak elkarrekin. Begiak gora altzatu eta oihukatu egin zuen batek:

—Hori panel ederra! “Aipatua da zure fama” dio horko inskripzioak lau geroglifiko handitan.

—Hori ez da dena —gehitu zuen besteak—, bada zuk ikusi ez duzun geroglifiko txiki ilara bat. Ber-

tan geroglifikogilearen izena eta obraren data agertzen dira.

Hau dena entzunik, inguruan zeudenetako batek galdetu egin zien:

—Zertaz ari zarete?

—Zin-oroigarrian irakurritako testuaz ari gara eztabaidatzen —erantzun zuten biek.

Ingurukoak farrezka hasi ziren.

—Zuek pareta zuri baten aurrean zaudete —esan zieten—, zin-oroigarria ez dute jarri oraindik.

(Txinako herri ipuina)





ARABATIK BARTZELONARA



Juan Antonio Konpañon «Konpa»: “IBILTZEN FRONTOIAN IKASI NUEN”

Bere aita pilotari profesionala izan zen, esku pilotan jokatzeko zuen eta amak txikia zenean “Vitoriano” izeneko frontoira eramaten zuen aita ikus zezan. “Frontoi hartan ikasi nuen ibiltzen, lau urterekin esku pilotan aritzen nintzen eta zazpirekin hasi nintzen zesta puntan”.

Amateur maila titulo eta txapel gehien lortu dituen jokalaria da Konpa. Amateur izatetik profesional izatera pasatuko da abuztuaren hasieran. “Profesional izateko gogo izugarria dut, lasaiago jokatu dudalakoan nago, orain presio handia jasaten nabil, batez ere Olinpiadei begira. Badirudi ondo klasifikatzen ez bagara ezingo garela etxera itzuli”.

Konpak badaki Olinpiadetan jendea begira izango duela “nataziorako eta zesta puntarako aspaldian saldu ziren sarrera guztiak”, horrexegatik ilusio handiarekin dabil entrenatzen. “Astelehen, asteazken eta ostiral arratsaldetan frontoira joaten naiz, astearte eta ostegunetan berriz, Mendizorrozarantz jotzen dut atletismo pistan entrenatzera Michelin taldekoekin”.

Jokalari batentzat bere jokatzeko erara egokitzen den zesta esku artean izatea ezinbestekoa da. Hau dela

eta, bere entrenatzailea den Isaias Ibarrrak, bere jokuari ondo moldatuko zaion zesta aproposa egiten dihardu Olinpiadetarako bereziki. “Nik pelotari gogor jotzen diot, eta zesta bakoitzak hilabete t’erdi irauten dit. Zestak arina eta tin-koa behar du izan. Arinek duten arazoa malgutasunarena da, erraz ematen dute, baina ez dira erosoak”.

Zestaren garrantziak aparte frontoiaren kalitateak ere garrantzi handia du

jokatzekoan. “Gernika eta Durangoko frontoietan pozik jokatzeko, biak oso onak bait dira. Baina zalantzarik gabe, gustokoen Olabe pilotalekua dut, huraxe da nire bigarren etxea”. Frontoiak frontoi, edonora joanda ere, Konpak hantxe daramatza bi fans bere atzetik: amona eta ama.

Fontoietako giroa euskalduna da, eta batetik kideekin euskaraz hitzegiteko, eta bestetik euskal komunikabideetan agertzeko euskara ikasteari ekin zion Konpak. “Orain hirugarren urratsa bukatu dut euskaltegian, eta Hobekuntzararte egiteko asmoa dut”.

Euskaltegian ikasle bada ere, Gasteizko Zesta Punta Eskolan irakasle. Hauxe dugu Euskal Herrian eskolarik handiena, 140 ikaslerekin. Baina hau ez da eskola bakarra. Eskola ugari dago herrietan eta begibistakoa da kirol hau indartuz doala.





ARABATIK BARTZELONARA



Jokin Larrañaga «Piztixe»

TRINKETEAN URREA GASTEIZA EKARTZEKO ASMOA

Hamabi urterekin irabazi zuen bere lehenbiziko kopa Jokin Larrañagak, Piztixek, eta hamabi dira Gasteizen daramatzan urteak. Ikasketak egitera etorri eta bertan geratu zaigu bizitzen eta lanean Azkoitiar hau. Gasteiza etorri zenean frontoian txapelketarik ez zegoenez trinketeari lotu zitzaion. Harrez gero trinkete kantxa barruan hamaika ordu eman ditu eta txapelketa askotan parte hartu. Orain, kirolari askoren ametsa betetzen ari da: olinpiadetan parte hartu.



"Pilotak dituen alde onak askotxo dituk - esaten digu-. Esaterako, beti norbaitekin jolastu behar izaten dek, horrela izan ezean, ez delako horren ondo pasatzen". Baina pilotak gainera beste zenbait gauzatarako ere balio du: "pilota norbera beste batzuekin harremanetan hasteko bide bat dek eta bere osotasunean hartuta jolasa eta ondo pasatzeko praktikatzeko kirola dek".

Pilotaren egoeraz galdetzean, pilota kanpotzen ari garen produkto bat dela diosku: "Pilotan Euskal Herrian inon baino hobeto jokatzen bada ere, euskaldun guztion poztasunerako, gero eta leku gehiagotara iristen ari dek bere entzuna eta horrekin batera ere, azken bolada honetan batik bat, gero eta kanpotar gehiagok praktikatzeko dik. Horrek aberastasuna ematen ziok kirol honi".

Aurten ezingo da Gasteizko jaietan egon bere azken muga edo helburuak eragotzita, izan ere "Joko Olinpikoetara joatea baino gauza handiagorik ez zego".

Eta joan, borrokatzera doaz Bartzelona alde hartara: "gure asmoak bi dituk, gehien bat: bateko, ondo jokatzea eta besteko urrea irabaztea". Umorea behintzat sekula ez du galdu Piztixek "Jakina, horiexek dituk asmoak, baina ikusiko diagu usteak erdi ustel edo nola suertatzen diren!" esan zigun farrezka elkarrizketa bukaeran. Gure aldetik zorte ona eta ondo joka dezatela opa genion.



OLAETXE

KIROL DENDA
POLVORIN VIEJO, 9 - TEL. 28 48 50
G A S T E I Z



Adriano VI, 4
Tfnoa: 14 63 25
G A S T E I Z

**LIBURUDENDA ESPEZIALIZATUA,
KARTOGRAFIA, BIDAIK
ETA MENDI GAIETAN**

Navarrería, 20
Tfnoa: 22 25 29
I R U Ñ E A



ARABATIK BARTZELONARA



ATLETISMOA

atletak



MARTIN FIZ

*Gasteizen jaioa (1963-3-3).
"Miguel de Unamuno" ikastetxe-
an kirola egiten hasia.
5.000 metrotan Espainiako txapel-
duna izandakoa "Aurrera" kirol
klubaren babespean.*



MAITE ZUÑIGA

*Eibarren jaioa (1964-12-28).
"Miguel de Unamuno" ikastetxe-
an kirola egiten hasia.
Gasteizen bizi da.
Seuleko Olinpiadetan ere parte
hartu zuen.*

epaileak



LUIS BOVEDA

*Gasteizen jaioa (1961-3-27)
Atletismoko epailea.
Bere lehenengo Olinpiada da aur-
tengoa.*



JOSE EMILIANO PARA

*La Horran (Burgos) jaioa.
16 urterekin gasteiztartua.
Konstruktorea.
Atletismoko epailea.
Aurtengoa bere lehen Olinpiada
izango da.*

HALTEROFILIA



FERNANDO MARIAKA

*Gopegin jaioa
(1959-5-30)
1975ean "pesak"
egiten hasia.
Bi Olinpiadetan parte
hartu izana, Los Angele-
sen eta Seulen hain zuzen.*



Telefonoak 25 05 30 - 25 66 85
GASTEIZ

arcaya

Portal de Villarreal, 22 eta 24
Telefonoa 26 05 58
Portal del Rey, 21
Telefonoa 28 08 69

SOINUA
IRUDIA
ARGIZTAPENA
ELEKTRAGAILUAK
OPARI GAIK



ARABATIK BARTZELONARA



JUDO

epaileak



ANTONIO BELLO

Caceresen jaioa (1948-7-15) baina 1960an Gasteizera etorria. Lanbidea: judo irakaslea WHA RANG gimnasioan eta "Corazonistas" eta "S.J. Calasanz" ikastetxeetan. Santa Luzia auzoko bizilaguna. Iaz, Bartzelonako Mundialetan epaile izan zen.

TENISA

epaileak



ALBERTO CORUJO

Gasteizen jaioa (1953-10-29) 15 urteko esperientzia tenisaren munduan, honako txapelketa hauetan epaile izanik: Conde de Godó, Grand Prix eta Mendizorrotxako Open izenekoetan.



GERARDO PONCELA

Gasteizen jaioa (1946-10-1) Lanbidea: judo irakaslea Espainiako SUB 21 selekzioko entrenatzailea. Epaile internazionala.



PEDRO MARQUINEZ

Gasteizen jaioa (1949-2-14) Igeriketa irakaslea. "Judizmendi" taldeko igerilari ohia. Esperientzia handiko igeriketa-epaile, txapelketa askotan parte hartu duenari.

IGERIKETA

PARAOLINPIKOAK



Gasteizen jaioa (1967-2-25) Saskibaloietan epaile internazionala. Esperientzia handiko kirolaria eta epaile. "Umandi" ikastolako saskibaloietan entrenatzailea.

JUAN M. URÑUELA



Agurainen jaioa (1965-6-4) Gasteizko Jesus Obreron eta Logroñon ikasten ibilia eta bere espezialitatean zaletzen hasia.

IÑAKI IBARRETA



JOSU RUBIO LASKURAIN

Gipuzkoako Aretxabaletan jaioa (1969-12-12). Gasteizen eta Zaragozan egin ditu ikasketak. «Sporting Alaves» pin-pong taldeko jokalaria

TXIRRINDUZ



**Txirrindulak
Txirrindula gaiak
Txirrindulari jantziak**

Tfnoa: 28 73 48
Judimendi Etorbidea, 12
GASTEIZ



ANA R. CASAL AGIRIANO

Gasteizen jaioa. Zaramagako bizilaguna. Molinuevoko Politeknikoan egin zituen bere ikasketak. Olinpiadetan parte hartzen duen lehen aldia.



ARABATIK BARTZELONARA



TXIRRINDULARITZA



Gasteizen jaioa (1970-1-3)
Judimendi auzoko bizilaguna.
Unibertsitari txapelketetan parte hartu du.

ALVARO
GONZALEZ
DE GALDEANO



Gasteizen jaioa (1954-10-21)
O.H.O.ko irakaslea.
Santa Luzia auzoko bizilaguna.
Txirrindularitza-epailea.
Olinpiadetan parte hartzen duen lehen aldia.

ANTONIO GAZEO

BOXEOA



OSKAR VEGA

Gasteizen jaioa
(1967-6-27)
"Oilar" pisuko
boxealaria.
Aurtengoa bere
lehen Olinpiada
senior kategorian



SILVIA
MANRIQUE

Laudion jaioa (1973-3-6)
Laudioko Ortega y Gasset ikastetxean ibilia.
Espainiako SUB-19 eta SUB-21 selekzioetan
parte hartu izan du.



RAFA AXPE

Aramaion jaioa
(1954-2-3)
Oraingo hau bere
bigarren Olinpiada
izango da. Lehena
Seulen egin zuen.
Munduko rekorra
du plater tiroan:
200 plateretatik 199
hautsiak.

PILOTARIAK



Gasteizen jaioa (1972-1-31).
"Txikito de Bernedo" ospetsuaren seme pilotaria.
Euskadiko txapelduna.
Munduko txapelduna Kubako Pilota-Mundialetan
zesta puntan.
Aurtengoa bere lehenengo Olinpiada.

JUAN ANTONIO KONPAÑON



Mendabian (Nafarroa)
jaioa (1950-5-9)
"Sancho el Sabio" ikas-
tetxeko irakaslea.
Epaileen koordinatzaile
nagusia.

ANTONIO ARAMENDIA



1968an jaioa.
Entrepesa ikasketetan dihardu Iruñean.
14 urtetik pilota munduan.
Adurtza auzok
bizilaguna.
Aurtengoa bere lehenengo Olinpiada.

LUIS TEJADA



Azkoitia jaioa (1961).
Azken 12 urteak Gasteizen eman ditu.
"Txikito de Azkoitia" famatuaren biloba
trinketelaria.
"Fco. de Vitoria" institutoko irakaslea.
Aurtengo Olinpiada lehenengoa izango du.

JOKIN LARRAÑAGA. «Piztixe»

Hemendik zorterik handiena eta domina uzta oparoena opa diegu gure olinpiko zein paraolimpiko guztiei !!



ZURE

OKINDEGI-GOXOTEGIA

Herrandarren kaleko 33an

GAUPASA ETA GERO
OPILAK GOIZERO

ANBOTO

EDAN-JANTEGIA - BAR-TXOKO

Kutxilleria, 29 - Tfnoa. 25 00 93 - 01001 GASTEIZ

ARABARRAK GAILURREAN



Atxo Apellaniz Agiriano
Gasteizen jaioa
37 urte
Himalaya mendikatea erruz
ibilia, Kang Chungse,
Cho-Oyu, Everest eta
abarretarako espedizioetan
parte hartu duenarik



Mikel Ruiz de Apodaka
Gasteizen jaioa
35 urte
Mundu osoko mendigailurrik
altuenetarako zenbait
espazioetan esku hartu du,
Akonkagua, Mackinley,
Cho-Oyu eta
abarretarakoetan, besteak
beste.



Jon Armentia
Gasteizen jaioa
33 urte
Medikuntza eta Kirurgian
lizentziatua, Euskal Herriko
Mendi Federakundeko
medikua.




Juanito Oiartzabal
Gasteizen jaioa
35 urte
Esperientzia handik
mendigoizalea dugu hau,
espazio askotan ibilia.
Hauek dira besteak beste egin
dituen mendirik
azpimarragarriak:
Kangchungse, Akonkagua,
Mackinley eta Everest.

ZAPATEGIA - ARTISAUTZA



Herreria, 86 - GASTEIZ



**BADIOLA
IZOZKIAK**

Urbina kalea, 1
GASTEIZ

SUKALDE TXOKOTIK

Hemen duzu aurki izango diren jaietarako aurkezten dizugun menua. Saiatu ere saiatu gara prestatzeko erraza izan dadin, lapiko artean denbora gehiegirik eman gabe, jaiak disfrutatu eta bermuta hartzera irten ahal izateko. Ajeak jota jaikitzen bazara ere erraz jango duzu. Gainera osagai afrodisiakoak ere ba omen ditu. Beraz, on egin eta ondo pasa!

TXANGURRO ENTSALADA

Jarri lapiko batean gatzik gabeko ura irakiten, jarri txangurroa bertan eta eduki egosten hamabost mintutan. Ondoren atera eta utzi epeltzen eskuekin erabili ahal izan arte.

Atera barruko eta hanketako haragia eta gorde haragi hau plater batean eta oskoletik ateratako mamia beste batean. (Oskola osorik gorde behar da, garbitu eta gero txangurroa bertan zebitzeko).

Ohol baten gainean zatitu ondo mamia eta ondoren txangurroaren haragia, olio, limoi eta ozpin tanto batzuk eta goilaratxo bat ziape (mostaza) erantsi. Dena nahastu ondoren sartu oskolean eta mahaira atera.

Oharra: Txangurroa egosi ondoren, garrantzizkoa da denbora luzean hozten ez uztea, bestela lehortu egiten da, platera mamitsu gera dadin beharrezkoak diren berezko zukuak xurgatuz.



UNTXIA SALTSAN PERRETXIKUEKIN.

Untxia garbitu eta gibela gorde. Zatitu eta frijitu ondoren lapiko batean jarri. Olio berberatan tipula eta baratxuri txikituak frijitu. Almaitz batean zehatu gibela, perrexil, xarbot eta ardo zuri piska batekin. Jarri krema hau lapikoan, frijitutako tipula eta baratxuriarekin batera eta guzti honi eskuz zatitutako perretxikoak erantsi, dena nahastuz. Estali lapikoa eta utzi poliki-poliki egiten. Noizean behin ardo zuri eta ur piska bat gehitu beharko zaio.

Untxia samur dagoenean aterako da.

ANANA BETEA.

Behin ananaren goiko zatia ebaki eta erdiko "enborra" kendu ondoren hustu egiten da, xukagailu (eskurridera) batean gordez.

Beste ontzi batean hiru arraultze zuringo eta 75 gr. azukre nahastu eta irabiatu egiten dira, merenge puntua lortu arte eta gorde egiten da.

Ondoren litro laurden bat esnegain eta 75 gr. azukre nahastu eta irabiatu, esnegaina sendotu arte (marrubiekin jateko bezala).

Azkenik, arraultze gorringoak, esnegaina, merengea, zatitutako anana eta kopa bat laranja likore nahastu, sartu dena anana azalean eta izozkailuan eduki ordu betez.



**JATETXEA
ERRETEGIA**

**OKELA ETA
ARRAIN
ERREAK**

Cantón de San Fco. Javier, 4 - Telefonoa 27 68 33 - 01001 GASTEIZ

1 I	2 N	3 A	4 K	5 I
6 L	7 A	8 N	9 D	10 A

[illegible]


Orain gutxi, Ekainaren 6 eta 7ko astebukaeran, hain zuzen ere, "EUSKARA-GASTEIZ. GEL" taldeak Barrian antolatu zuen Soziolinguistika ikastaro trinko bat, euskarak Araban bizi duen egoera aztergai nagusi izanik. Honela, bertan parte hartu zuten guztiek horren inguruan zeuzkaten kezkak eta zalantzak plazaratzeko aukera aparta izan zuten, gai honetaz polito jaten ari ziren bitartean. Egia esanda, lehengo monastegi kutsuari eusten dion Barriako aterpetxe horretan astebukaera osoa ematea gogorra suertatu zen. Hala ere, hara bildutakoak adorez eta atseginez ikusi genituen lanean, beraien jakinahia uneoro agerian utzi. Eta norbaitek guzti hau sinesten ez badu, ondoko argazkian dauden aurpegiak poztasuna ikusi besterik ez dago.

[illegible]

V	D	N	V	T
I	K	A	N	I



1992



EUSKADIKO LEHEN KOMUNIKAZIO-TALDEAK HAMAR URTE BETE DITU

ONGI ETORRI

GEU
gasteiz

Hamar urtetan ametsa egi bihurtu da.


1982. urte arte ilusio hutsa zen.

Gaur egun, lau irrati eta bi Telebista-kate dituela, Euskal Irrati-Telebista Euskadiko lehen Komunikazio-taldea da.

Atzo goizean bertan gertatu zela dirudi. Baina hamar urte joan dira herri honen historian.

Badugu oraindik zereginik asko.

Proiektu berriak. Ilusio berriak...



HAMAR URTE

Caja Vital Kutxaren TeleCaja *plus* berria



Den-Dena Dauka Ba al daukazu zuk?

Bakarrik hitzegitea falta zaio.
Badauzka kredito txartelaren abantailak.
Badauka 6000 txartelaren erabilgarritasuna.
Badauka edozein ezustetarako asegururik.
Badauka aparteko diseinua...
eta Caja Vital Kutxaren babes berea.
TELECAJA PLUS berria.
Den-dena dauka
Ba al daukazu zuk?

Argibide gehiago
900-440.440
doanezko telefonoan

KONTUTAN HARTZEKO ABANTAILAK



1. Behar duzun guztietan, kredito automatikoa eta berehalakoa eskuragai izatea.

5. Eskudirua nahiz kredituzkoa ateratzea estatuko 17.000 toki desberdinetan, eta aurki Europa osoan ere.



2. TeleCajak lagun dituen saltegi, jatetxe, tailerretan... ordaintzea.

6. Txartela lapurtu edo galduz gero, edonolako estaldi zein ustekabe alboratzea. Horretarako aski da 16 22 77 telefono zenbakira deitzea, bera indargabetzeko.



3. Ordainbidea beti aukeran izatea: eskura, hilabeteka, epeka...

7. Trenez, hegazkinez, itsasontziz... egindak joan-etorriak ordaintzea, eta istripu aseguria milioietakoa izatea.



4. Txartelaren bidez, erositako en lapurretarako 3 hilabeteko aseguru berezia.

8. Zure saldoa ikusi, estraktoak eta taloitegiak eskatu eta zure gastuen kontrola eramatea.

Caja Vital  **Vital Kutxa**

Gasteiz eta Arabako Kutxa

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa